En el ámbito de telecomunicaciones, a través de la Sociedad Pública ITELAZPI, S.A., se han realizado las siguientes actuaciones:

- Mejora de la red de transporte y difusión de radio y televisión.
- Proyecto de despliegue de Banda Ancha en los municipios de carácter rural.
- Respecto al proyecto de Televisión Digital Terrestre se ha ampliado la cobertura en Gohierri y parte de Tolosaldea.

Finalmente, en otras áreas de actuación:

Dentro de la gestión informática departamental se han desarrollado las siguientes actuaciones:

- Continuar con la migración de las aplicaciones existentes en los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y Vicepresidencia del Gobierno, que están diseñadas en 16 bits a 32 bits.
- Adaptación de las aplicaciones a los nuevos componentes derivados de la evolución de los entornos tecnológicos, software base, gestión de las bases de datos, etc.
- Planificación e inicio de las migraciones de máquinas en cuanto a servidores Web y servidores de aplicaciones.
- Nuevas versiones y módulos de aplicaciones: Gestión del Tribunal Económico-Administrativo de la CAE, Seguimiento de Tributos concertados, Mediadores de Seguros, Vía Ejecutiva, Portal del empleado, Análisis Funcional de los puestos tipo de trabajo, Incidencias de Seguridad, Control de Transferencias, Iniciativas Parlamentarias, Almacén de Gamarra, Responsabilidad Civil Sanitaria, Expedientes de Régimen Jurídico, etc.

En el área de personal se ha creado el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, el Servicio de Estadística y el Servicio de Defensa de la Competencia en el Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como la Comisión Jurídica Asesora en la Vicepresidencia del Gobierno. Se ha adecuado la plantilla de personal a lo previsto en los Decretos de Estructura Orgánica de Hacienda y Administración Pública y de la Vicepresidencia del Gobierno, publicados el 9 de marzo de 2006.

Se ha continuado con la gestión presupuestaria y control de gasto cumpliendo puntualmente con todas las incidencias generadas y adaptando todos los procesos a las necesidades surgidas.

En lo que concierne a la coordinación y apoyo en materias de organización, medios y funcionamiento interno, todos los requerimientos han sido atendidos con celeridad, destacando los cursos de capacitación lingüística, traducción al euskera de todos los textos remitidos desde los diferentes órganos administrativos del Departamento de Hacienda y Administración Pública y Vicepresidencia, Plan departamental de formación, así como la tramitación de los asuntos al Consejo de Gobierno y la coordinación y remisión al Parlamento de las respuestas a las distintas iniciativas parlamentarias.

EKONOMIA, AURREKONTUAK ETA KONTROL EKONOMIKOA.

Ekonomia arloan honako jarduerok aipatu behar dira:

- Europar Batasunarekin ekimenerako martxan ipinita dauden tresnen koordinazioa eta kudeaketa, bai horiek aurreko programazioaldiari (1994-1999) bai oraingoari dagozkienak (2000-2006).
- IZARTU I eta IZARTU II hirialdeak biziberritzeko erabateko programak kontrolatu eta kudeatzea.
- Toskana eta Hungariako Iparraldeko eskualdeekin, DEPURE Interreg III C-Eskualde Marko Eragiketa deritzon Europako lankidetzaproiektua martxan jarri eta ekintzak garatu dira.
- Europar Batasuneko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheziarako Politikaren parte-hartzeko tresnen proposamenak prestatzea, 2007-2013 aldirako: Lurralde lehiakortasuna eta enplegurako (2 zenbakiko Helburu berria) eta Lurraldeen arteko Lankidetzarako (Interreg programa berriak) EAEko programa eragileak.
- Erreferentziatzko eskualde-esparru estrategikoa prestatu eta aurkeztea, Euskadi 2007-2013 aldian Europar Batasuneko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheziarako Politikan parte-har dadin.
- Euskal koiunturari baita Estatuarena eta nazioartekoarenari buruz ere aztertze eta jarraitze lanak egin dira, arreta gehiena Europako eboluzioari ipini zaiola, batetik, eta, bestetik, Ekonomia aldizkaria eta Txosten betearazlea prestatu eta argitaratzea. Azterlan horien artean "Zerga-zehapenak araubide erkide eta foralean" eta "Petrolioaren prezioak izan duen eragina euskal ekonomian" izenekoak daude.
- Euskal ekonomiaren esparru makroekonomikoaren berrikuspena.
- Euskal Estatistika Batzordea eta Kontseilua diren Euskal Estatistika Antolakundearen bi organo nagusietan Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ordezkari gisa parte-hartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren 1993-2005 Gastuaren Datu-basea mantendu eta eguneratzea.
- Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu-exekuzioari buruz hiru hiletan behin estatistikak egin dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko "Udal ekipamendu eta azpiegiturei buruzko Inkesta" ezartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko "Udalerrri mailako jasangarritasun adierazleak" izeneko inkesta ezartzea.
- "Euskal herri administrazioen kontu ekonomikoak 2005" izeneko estatistika lortzea.
- Koiunturazko datuz osaturiko banku bat mantendu eta ustiatu da barruan zein kanpoan erabiltzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren gastuari buruzko basea prestatu da, 1993-2004 aldiari dagokiona, hain zuzen.

ÁREA DE ECONOMÍA, PRESUPUESTOS Y CONTROL ECONÓMICO.

En el área de Economía cabe citar las siguientes actuaciones:

- Coordinación y gestión de los instrumentos de intervención comunitaria en marcha; tanto los relativos al período de programación anterior (1994-1999), como los pertenecientes al actual (2000-2006).
- Control y gestión de los Programas Integrales de Revitalización Urbana IZARTU I e IZARTU II.
- Puesta en marcha y desarrollo de actividades, con las regiones de Toscana y Norte de Hungría, del proyecto de cooperación europea Interreg III C-Operación Marco Regional DEPURE.
- Elaboración de propuestas de los instrumentos de intervención de la Política de Cohesión Económica, Social y Territorial de la Unión Europea durante el período 2007-2013: Programas Operativos del País Vasco para la Competitividad Regional y Empleo (nuevo Objetivo n 2) y para la Cooperación Territorial (nuevos Programas Interreg).
- Elaboración y presentación del Marco Estratégico Regional de Referencia para la participación de Euskadi en la Política de Cohesión Económica, Social y Territorial de la Unión Europea durante el período 2007-2013.
- Realización de estudios y tareas de seguimiento de la coyuntura vasca, estatal e internacional con especial dedicación a la evolución europea y la elaboración y edición de la revista Ekonomia y del Informe Ejecutivo. Entre estos estudios se encuentran el de "Las sanciones tributarias en régimen común y foral" y "El impacto del precio del petróleo en la economía vasca".
- Revisión de los escenarios macroeconómicos de la economía vasca.
- Participación como representantes del Departamento de Hacienda y Administración Pública en los dos órganos máximos de la Organización Estadística Vasca: Comisión y Consejo Vasco de Estadística.
- Mantenimiento y actualización de la Base de Datos del Gasto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi 1993-2005.
- Realización de estadísticas trimestrales de ejecución presupuestaria del Gobierno Vasco y Diputaciones Forales.
- Implantación de la "Encuesta de Equipamiento e Infraestructuras Municipales" de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Implantación de la estadística "Indicadores de sostenibilidad a nivel Municipal" de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Obtención de la estadística "Cuentas Económicas de las Administraciones Públicas Vascas 2005".
- Mantenimiento de un banco de datos de coyuntura y su explotación para uso interno y externo.
- Realización de la base estadística del gasto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi 1993-2004.

- Apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren bitartez, Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia martxan jarri dira, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko 1/2002 Legean ezarritakoari jarraituz.
 - Martxoaren 8ko 48/2005 Dekretuaren bitartez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu da.
 - Epe laburrerako aurreikuspen-eredu berria martxan jarri da.
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoaren prestaketa.
 - “Euskadi Lisboako Estrategian” txostena prestatu da Europako Kontseiluan erabaki ziren egiturazko adierazleei buruz.
 - Aurrekontu Zuzendaritzarekin batera, “Gizarte gastua EAEn (2001-2006) eta etorkizunerako ikuspegiak” izeneko txostena prestatu da.
 - Aurrekontu Zuzendaritzarekin batera, 2006-2009 aldirako Euskadiren bai Ekonomia-testuinguruari bai Hazkunde eta Aurrerapen Sozialerako erreformei buruzko Programa prestatzeko prozesua martxan jarri da, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen 2006ko apirilaren 12ko Erabakian jasotakoari jarraituz.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eginiko azterlan ekonomiko guztiak koordinatzea helburu duen datu-base bat mantendu da eta alor ekonomikoan lan egiten duten organoei laguntza teknikoa eman zaie.
 - Topaketa eta mintegi batzuen antolaketa.
- Eusko Jaurlearitzaren apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia (LDEA) sortu zuen, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari atxikita dagoena, hain zuzen.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Auzitegi hau eta Lehiaren defentsarako organoak sortzeak, Auzitegi Konstituzionalaren 1999ko azaroaren 11ko epaiaren ondorioz, gai honi dagokionez emandako eskumenak benetan guztatu du helburu.
- Aurrekontuen alorrak bi egiteko nagusi ditu, alegia batetik, urteko aurrekontuak prestatu behar ditu; eta, bestetik, aurrekontuak betearazteko eta geroko gastuak zeintzuk izan daitezkeen zehazteko aurrekontuen jarraipena egin behar du. Hori dela eta esan beharra dago 2006 urtean zehar, aurrekontu eta beronen egiteko nagusien alorrean honako jardueri ekin zaie:
- 2007 urteko aurrekontuen aurreikuspenak eta gastu-beharrei buruzko hainbat txosten prestatu dira. Horretarako, bilera ugari egin dira sailietako arduradunekin, batez ere, aurrekontu-eskaerak aztertu eta horien artean lehentasunak ezartzeko.
- Aurrekontu-baliabideen eta beraien xedeen artean ahalik eta loturarik zuzenena eta argiena lortzeko, aurrekontu-egiturak (funtzionala, programen arabera, ekonomikoa eta antolatzailea) aztertu eta zehaztu dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrari buruz jarraibide ekonomikoak garatu dira baita jarraibide teknikoak prestatu ere.
- Puesta en marcha del Servicio de Defensa de la Competencia y del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 1/2002, de Coordinación de Competencias del Estado y las Comunidades Autónomas, mediante Decreto 81/2005, de 12 de abril.
 - Creación del Órgano estadístico específico del Departamento de Hacienda y Administración Pública aprobado mediante Decreto 48/2005, de 8 de marzo.
 - Puesta en marcha de un nuevo modelo de previsión a corto plazo.
 - Elaboración de las directrices económicas para la confección de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.
 - Elaboración del informe “Euskadi en la Estrategia de Lisboa” sobre los indicadores estructurales que se acordaron en el Consejo Europeo.
 - Elaboración, conjuntamente con la Dirección de Presupuestos, del informe “Gasto Social en la CAE (2001-2006) y perspectivas de futuro”.
 - Puesta en marcha, conjuntamente con la Dirección de Presupuestos, del proceso de elaboración del Programa de Contexto Económico y Reformas para el Crecimiento y Progreso Social de Euskadi 2006-2009, según lo recogido en Acuerdo de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos de 12 de abril de 2006.
 - Mantenimiento de una base de datos para la coordinación de todos los estudios económicos realizados por la Administración General de la Comunidad Autónoma y prestación de apoyo técnico a cualquier órgano que opere en el campo económico.
 - Organización de diversos encuentros y seminarios.
- El Decreto 81/2005, de 12 de abril del Gobierno Vasco, crea el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia (TVDC) como un órgano adscrito a la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública.
- La creación del Tribunal y de los órganos de defensa de la Competencia en el País Vasco tiene como finalidad dar una respuesta adecuada al ejercicio efectivo de la distribución de competencias en esta materia, como consecuencia de la sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999.
- En el Área de Presupuestos y en sus dos funciones básicas: la elaboración del Presupuesto anual y el seguimiento del mismo tendente al impulso de su ejecución y al establecimiento de previsiones de escenarios de gasto a futuro, a lo largo de 2006 se ha procedido a:
- Elaborar los escenarios presupuestarios para el ejercicio 2007 y diversos informes sobre necesidades de gasto, con numerosas reuniones con los responsables departamentales para valorar y priorizar las peticiones presupuestarias.
- Analizar y definir las estructuras presupuestarias (funcional, de programas, económica y organizativa) de manera que permitan recoger de la forma más clara posible la asignación de los recursos presupuestarios y sus objetivos.
- Desarrollar las directrices económicas y elaborar las directrices técnicas de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

Aurrekontuen Lege Proiektua egin da, eta baita berarekin batera doan dokumentazioa ere.

Parlamentuko izapideak betetzeko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari berari laguntza tekniko eman zaie.

Gastu-programen aurrekontu-jarraipena etengabe egin da, eta betearazpen-aurreikuspenak aztertu eta landu dira. Halaber, gastu eta diru-sarreretan eragina izan dezaketen proiektu arauemaileak aztertu eta horiei buruzko txostenak ere egin dira.

Horrez gain, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzarekin batera, EAEn Gizarte gastua (2001-2006) eta etorkizuneko ikuspegi buruzko azterlana prestatu da.

Ekonomia-kontrolari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera ekonomikoaren ekonomia eta zerga kontrola egin da, eta eduki ekonomikoa duten xedapenen kontrol ekonomiko-arauemailea ere burutu da. Halaber, Auditorien Urteko Planean eta Osakidetzaaren Etengabeko Finantza Kontrolaren Planean aurreikusita zeuden finantza eta kudeaketa auditoria guztiak burutu dira.

Bestalde, Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen eragiketa ekonomiko guztien kontabilitateko kudeaketa burutu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren aurrekontu-egoerari buruzko hileko eta hiruileko txostenak egin dira. Halaber, EAEn 2005eko Urteko Kontuak eta Aurrekontu Orokorren Kitapena egin dira.

Premiamendu bidea kudeatzeko Sistema bat ezartzen baita diru-laguntza publikoei buruzko informaziorako Sistema bat garatzen ere ari da.

FUNTZIO PUBLIKOAK.

Funtzio Publikoaren alor honetan, 2006 urtean zehar honako prozesu hauek burutu dira:

- EAEnko administrazio langile guztien 2006rako lansariak ezartzen dituzten Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioak.
- EPE 2000 ebaztea, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Agindua bitartez deituta (750 plaza).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi batean zerbitzuak betetzeko langileak hautatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Akordioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileen kudeaketa bateratuaren jarraibide antolatzaile eta funtzionalak eta baita kolektibo guztiak (alegia, Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Herrizaingo eta Justizia) kudeatzeko sistema informatiko berri bat hartzea ere onartzen dituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren (Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea) 2006ko martxoaren 7ko Akordioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileen kudeaketa bateratuaren sistema informatikoa esleitzeko Baldintza Teknikoen Plegua prestatzea (Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Herrizaingo eta Justiziako kolektiboetarako).

Elaborar el Proyecto de Ley de Presupuestos así como la documentación que acompaña a los mismos.

Apoyar técnicamente al Gobierno y al Parlamento en el procedimiento de tramitación parlamentaria.

Realizar de manera continua un seguimiento presupuestario de los programas de gasto, elaborando y analizando las previsiones de ejecución. Así mismo se han estudiado e informado los proyectos normativos de incidencia en los gastos e ingresos.

Además se ha elaborado conjuntamente con la Dirección de Economía y Planificación el estudio sobre el Gasto social en la CAE (2001-2006) y perspectivas a futuro.

Por lo que respecta al control económico se han realizado las funciones de control económico-fiscal de la actividad económica de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de control económico-normativo de las disposiciones con contenido económico. Asimismo se han realizado las auditorías financieras y de gestión contempladas en el Plan Anual de Auditoría y en el Plan de Control Financiero Permanente de Osakidetza.

Por otra parte, se ha llevado a cabo la gestión contable de todas las operaciones económicas de la Administración General y Organismos Autónomos y la elaboración de los informes mensuales y trimestrales de la situación presupuestaria y financiera de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo se han elaborado las Cuentas Anuales y la Liquidación de los Presupuestos Generales de la CAE de 2005.

Se está procediendo a la implantación de un Sistema de gestión de la vía de apremio y al desarrollo de un Sistema de información de subvenciones públicas.

ÁREA DE FUNCIÓN PÚBLICA.

Dentro del Área de Función Pública, durante el año 2006 han tenido lugar los siguientes procesos:

- Acuerdos del Consejo de Gobierno por los que se establecen las retribuciones del 2006 para el conjunto del personal al servicio de la CAE.
- Resolución de la OPE de 2000, convocada mediante Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública (750 plazas).
- Acuerdo del Consejo de Gobierno de 30 de Mayo de 2006, sobre selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la CA del País Vasco y sus OO.AA.
- Acuerdo del Consejo de Gobierno (Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos) de 7 de marzo de 2006, por el que se aprueban las directrices organizativo-funcionales de la gestión integrada de personal de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la adopción del nuevo sistema informático para la gestión de todos los colectivos (Administración General, Educación, Interior y Justicia).
- Elaboración del Pliego de Condiciones Técnicas para la adjudicación del sistema informático de gestión integrada del personal de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco (para los colectivos de Administración General, Educación, Interior y Justicia).

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Agindua.
 - Lanpostuen dotazio guztiei esleitutako eginkizun eta zeregin guztiak balioestea.
 - Análisi funtzionalen datu-basean jasotako informazioa oinarri harturik, lanpostu guztien monografiak prestatzea.
 - Antolaketa eta giza baliabideen eredu berria aplikatzearen ondorioz funtzionarioen Langileen Zerrenda osoa aldatzeko Dekretua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzura diharduten langileen informazio estatistikoa, euskarri informatikoan, argitaratzea.
 - Jokabide-elkarrizketa Egituratuaren analisi, balioespen eta aurrezateko balidazioa (bigarren azterlana).
 - Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko den ekainaren 13ko 121/2006 Dekretua.
 - Prestakuntza araudiari buruzko Dekretuaren zirriborroa.
 - Langileen Kudeaketa Bateratuaren Sistemaren (GIP) administrazio-prozedurak eguneratu eta hobetzea.
 - Gizarte Segurantzarekin Hitzarmena kudeatzea.
 - Gizarte Segurantzaren gaiei buruzko erreklamazioak kudeatzea.
 - Langileen Zerrenda aldatzea lanpostu berriak sortuz, EAEko 2006ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2005 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
 - Aldi baterako langileak kontratatze prozedurari buruzko 2006 Zirkularra.
 - Jabetza-hiritarreko ganberetatik datozen langileak integrazeko prozesua.
 - Lanpostuen analisirako aplikazio informatikoa Jakinan prestatzea.
 - Lanpostuek oro har eskatzen dituzten gaitasunen taxonomia egitea.
 - Betetzeko irizpideen taxonomia.
 - Prestakuntza-erakundearen taxonomia.
 - Enplegu publikoaren Web-aren diseinu eta proba pilotu egitea (Internet-en bidezko sarbidea).
- Negoiazio Kolektiboko arloan azpimarratu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen erakunde autonomoetako funtzionarioen zein lan-kontratuko langileen lan-baldintzei dagozkien prozesuak.
- Orden de 30 de mayo de 2006, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que regula el procedimiento para la provisión en Comisión de servicios de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.
 - Valoración de todas las funciones y tareas atribuidas a todas las dotaciones de los puestos de trabajo.
 - Elaboración de las monografías de todos los puestos a partir de la información contenida en la base de datos de los análisis funcionales.
 - Decreto de modificación de toda la RPT de personal funcionario como consecuencia de la aplicación del nuevo modelo de organización y recursos humanos (análisis funcionales).
 - Publicación, en soporte informático, de la información estadística del personal al servicio de la Administración General de Euskadi y sus OOAA.
 - Análisis, evaluación y validación predictiva de la Entrevista Conductual Estructurada (segundo estudio).
 - Decreto 121/2006, de 13 de junio, de tercera modificación del decreto sobre indemnizaciones por razón de servicio.
 - Borrador del Decreto sobre reglamento de formación.
 - Actualización y mejora de los procedimientos administrativos del Sistema de Gestión Integrada de Personal (GIP).
 - Gestión del Convenio con la Seguridad Social.
 - Gestión de reclamaciones en materia de Seguridad Social.
 - Modificación de la RPT con la creación de nuevos puestos al amparo de lo dispuesto en el artículo 15.4 de la Ley 5/2005 de Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2006.
 - Circular 2006 sobre procedimiento para la contratación de personal temporal.
 - Proceso de integración del personal proveniente de las Cámaras de Propiedad Urbana.
 - Elaboración de la aplicación informática de análisis de puestos de trabajo en Jakina.
 - Taxonomización de las destrezas requeridas por el conjunto de puestos de trabajo.
 - Taxonomización de los criterios de desempeño.
 - Taxonomización de los contenidos formativos.
 - Diseño y prueba piloto de la Web de empleo público (acceso desde Internet).
- En el Área de Negociación Colectiva merecen destacarse los procesos correspondientes a las condiciones de trabajo tanto del personal funcionario como de los colectivos laborales al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

Karrerako funtzionarioei dagokionez, Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialean negoziatu egin da, langileen ordezkarien zati batekin hartutako akordioarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Agindua.

Aldi baterako zerbitzuak betetzen ari diren langileak direla eta, Administrazio orokorraren Mahai Sektorialean ere negoziatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi batean zerbitzuak betetzeko langileak hautatzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Akordioa.

Halaber, Lan-kontratuko Taldeentzako Hitzarmenaren Mahaiari dagokionez, "Ibaiondo" Ikastetxeko langileen lan-baldintzak zehazteko bilerak egin direla eta, horrez gain, indarrean dagoena aldatuko den Lan-kontratuko Taldeentzako Hitzarmen berri bat sinatzea xede duen negoziatio-prozesu bat hasteko prestaketa-lanak burutu egin direla ere azpimarratu egin behar da.

Bukatzeko, indarrean dauden akordio eta hitzarmenak behar bezala betetzeko egin den jarraipen-lana aipatu behar da eta baita, beste negoziatio arloetan eta baltzu publikoetan lortutako akordioei dagokionez, antolatuko den jakinarazpen eta fiskalizazio lana ere.

Laneko hitzarmen eta akordio ezberdinetan jasotzen diren gizarte laguntza eta zerbitzuen kudeaketa arrunta.

Ordutegi kontrolako sistemaren kudeaketa baita sinadura elektronikoen erregistroa Egiaztatzeko Erakundearena.

Eskubide Pasiboen Batzordearen ohiko bilerak baita Lan Osasuneko Batzordearenak ere.

2006 urtean larrialdietarako planak egiteari bultzada bat eman zaio. Horrela, ondorengo erakunde hauen eraikinen larrialdietarako planak gauzatu dira: EMAKUNDE, Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza, Zarautz eta Tolosako lurralde zentroak, HABE-Bizkaia, SOS-DEIAK delakoaren eraikinak eta Administrazioaren Biltegi Nagusia.

Larrialdietarako planen ondorioz, urtearen azken hiru hilabeteen aipatutako eraikinen ebakuazio-simulakroak egitea aurreikusita dago. Horrez gain, aurreko urteetan egiten ari diren kudeaketa zentralizatuko eraikinen simulakroak baita ebakuazio, lehen sorospen eta su-itzalketei buruzko beharrezko prestakuntza ere burutuko dira.

Hirugarrenez, eta Prebentzio Zerbitzuaren ohiko funtzionamenduaren barruan, langileek lan-segurtasuna eta lan-osasunari buruz aurkeztu dituzten eskaera, kexu eta erreklamazioei erantzuna eman zaie.

Bestalde, moral- edo sexu-jazarpenaren egoerarik sortuko balitz Administrazio orokorrean eta bere erakunde autonomoetan jarraitu beharreko prebentziozko neurri guztiak eta jarraitu beharreko prozedura batzen dituen Agindu bat prestatu da. Hori dela eta, zuzendaritza karguak, prebentzio-ordezkariek eta aipatutako Agindua indarrean hastearren ondorioz edozein ekintza-mota egotzi dakiekeen langileak prestatzeko helburuz beharrezkoak diren ikastaroak ere diseinatu dira.

En relación con el personal funcionario de carrera, en la Mesa Sectorial de la Administración General se ha negociado, con acuerdo con parte de la representación del personal, la Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que regula el procedimiento para la provisión en comisión de servicios de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos.

En relación con el personal que presta servicios de carácter temporal, se ha negociado también en la Mesa Sectorial de la Administración General el Acuerdo de Consejo de Gobierno, sobre selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Cabe asimismo destacarse que, respecto a la Mesa del Convenio de Colectivos Laborales, se han celebrado reuniones para la determinación de condiciones laborales del personal del Centro Educativo "Ibaiondo" y se han llevado a cabo los trabajos preparatorios para el inicio de un proceso de negociación encaminado a la suscripción de un nuevo Convenio de Colectivos Laborales, que sustituya al actual.

Finalmente, reseñar la labor de seguimiento desarrollada sobre la efectiva aplicación de los Acuerdos y Convenios vigentes así como la de informe y fiscalización articulada en relación a los acuerdos alcanzados en otros ámbitos sectoriales de negociación y sociedades públicas.

Gestión ordinaria de servicios y atenciones sociales previstas en los diferentes Acuerdos y Convenios Laborales.

Gestión del sistema de control horario y de la Entidad de Certificación de Registro de firma electrónica.

Reuniones habituales de la Comisión de Derechos Pasivos y del Comité de Salud Laboral.

En el año 2006 se ha dado un impulso a la realización de los planes de emergencia. Así se han realizado los planes de emergencia de los edificios de EMAKUNDE, Delegación Territorial de Sanidad de Gipuzkoa, centros territoriales de Zarautz, Tolosa, HABE-Bizkaia, edificios de SOS-DEIAK y Almacén General de la Administración.

Como consecuencia de la elaboración de los planes de emergencia está previsto realizar en el último trimestre del año los simulacros de evacuación de todos los edificios mencionados, más los simulacros de los edificios de gestión centralizada que se han venido realizando en años anteriores. Así como, la formación necesaria en materia de evacuación, primeros auxilios y extinción de incendios.

En tercer lugar, y, dentro del funcionamiento ordinario del Servicio de Prevención, se ha dado respuesta a las peticiones, quejas y reclamaciones presentadas por los trabajadores con relación a la seguridad y salud laboral.

Por otra parte, se ha elaborado una Orden en la que se recogen todas las medidas preventivas y el procedimiento de actuación a seguir en el ámbito de la Administración General y sus Organismos Autónomos en caso de que se produzca una situación de acoso moral o sexual. Por esta razón, se han diseñado los cursos necesarios para dar formación a los cargos directivos, delegados de prevención y personal al que se le atribuyan algún tipo de actuación como consecuencia de la entrada en vigor de dicha Orden.

Bukatzeko azpimarratu behar da Prebentzio Zerbitzuaren Mediki Arloak egin duen prebentzio eta sorospen-lana, aldizkako mediku azterketen bitartez eta langileei laguntza emanez eguneroko bisita medikuetan.

OGASUNA ETA FINANTZAK.

Zerga Administrazioaren esparru barruan honako jarduerok bideratu dira:

- Aurrekoetan bezala zerga-gaietan aholkularitza eta kontrol zerbitzuak eman zaizkie EAEko Administrazio Orokorrari eta Instituzionalari, zerga alorrean dituzten betebeharrak beteko direla bermatzeko xedez.
- Zerga alorrean udalekin ditugun harremanak normaltzearekin jarraitu da, erabilitako baliabideak honako hauek izan direlarik: aldizka kobratzen diren zergak ordaintzeko prozedura automatizatua; Jaurilaritzako sailek zerga nola kudeatzen dituzten ikustea jarraipen baten bidez; aurreko egoeren azterketa.
- Jarraitu da baltzu publikoei ikuskaritzetan laguntza ematen.
- Tasa eta prezio publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauerei buruzko Legea aldatzeko den Lege-egitasmoa prestatzea, 2006ko martxoaren 7ko Jaurilaritzaren Kontseiluak onartua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen uztaillaren 21eko 161/1998 Dekretua aldatzeko dekretuak.
- Autonomia erkidegoen eta foru aldundien artean Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari nahiz Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagozkien espedienteak izapidetzeari jarraitu zaio.
- Euskadiko Zerga-Kideketarako Sailean EAEko Zerga Politikako egitasmoetan parte hartu da. Hauen artean azpimarratzekoak da PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga berritzeko egitasmoetan izandako partaidetza. Honako hauek 2007an indarrean hasiko direla aurreikusita dago.
- Parte hartu da lurralde historikoetako zerga arauak hobeki koordinatu eta harmonizatzeke edota zerga-politikako ekimenak sustatzeko helburuz sortutako erakundearteko lantaldetan.
- Auzitegi Gorenak Sozietateen gaineko foru Zergari buruz eman duen epaiak sortu duen arazoa konpontzeko jarduerak koordinatzen laguntza eman da.
- Zerga foru araudiari eta zerga araudi komunari buruz Europako Batzordeak irekitako prozedurei dagozkien euskal zerga-administrazioen jarduerak koordinatu dira.
- Aginduzko txostenak egin dira foru aldundiek zerga alorrean darabiltzaten irizpideak koordinatzeko asmoz foru aldundiei aurkeztutako kontsulta lotesleei buruz.
- Estatuko Administrazioak igorritako proiektu arau-emaileak aztertu dira eta, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeke Batzordeari laguntzeko, dagozkion txostenak prestatu dira.

Para finalizar hay que destacar la labor preventiva y asistencial del Área Médica del Servicio de Prevención, a través de los reconocimientos médicos periódicos y de la asistencia a los trabajadores a través de las consultas médicas diarias.

ÁREA DE HACIENDA Y FINANZAS.

Dentro del área de la Administración Tributaria se han desarrollado las siguientes actuaciones:

- Se ha continuado prestando servicios de asesoramiento y de control en materia tributaria a las Administraciones General e Institucional de la CAPV, con el fin de garantizar el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Se ha continuado normalizando las relaciones tributarias con los Ayuntamientos, mediante los siguientes instrumentos: procedimiento automatizado de pago de los tributos de cobro periódico, seguimiento de la gestión del resto de tributos por parte de los Departamentos del Gobierno, análisis de situaciones anteriores.
- Se ha continuado dando apoyo en las auditorias a las Sociedades Públicas.
- Elaboración del Proyecto de Ley de modificación de la Ley de Tasas y Precios Públicos y de la Ley de principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Consejo de Gobierno el 7 de marzo de 2006.
- Decretos de modificación del Decreto 161/1998, de 21 de julio, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la CAPV y de sus organismos autónomos.
- Se ha continuado con la tramitación, entre las Comunidades Autónomas y las Diputaciones Forales, de expedientes referidos al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.
- En el ámbito del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se ha participado en los proyectos de Política Tributaria de la CAPV, de especial relevancia la participación en los proyectos de reforma del IRPF y el Impuesto sobre Sociedades que se prevé entren en vigor en 2007.
- Se ha participado en los diversos grupos de trabajo interinstitucionales creados con el objeto de lograr una mayor coordinación y armonización de la normativa tributaria de los Territorios Históricos y/o promover iniciativas de política tributaria.
- Se ha colaborado en la coordinación de las actuaciones en aras a resolver el problema causado por la sentencia del Tribunal Supremo relativa al Impuesto sobre Sociedades foral.
- Se han coordinado las actuaciones de las Administraciones tributarias vascas relativas a los procedimientos abiertos por la Comisión Europea relativos a normativa tributaria foral y común.
- Se han elaborado los preceptivos informes sobre las consultas vinculantes planteadas a las Diputaciones Forales en aras a lograr una coordinación de los criterios tributarios de las Haciendas Forales.
- Se han analizado los proyectos normativos remitidos por la Administración del Estado y elaborados los correspondientes informes como apoyo a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

- Fabrikatzearen gaineko zerga berezien kuotak itzultzeagatik finantza erregulazioei dagozkien kudeaketak egin dira.
 - Koordinaketa-lanak egin dira foru aldundien eta Estatuko Administrazioaren arteko harremanetan, batez ere Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin, eta, halaber, zenbait batzarretan parte hartu da.
 - Euskal Ogasunari buruzko Urteko Txosten Integratua prestatu da, 2004 urtetakoa, hain zuzen, eta 2005 urterakoaren prestaketa lanak burutu dira. Gainera, "Zergak-Gaceta Tributaria del País Vasco" aldizkaria argitaratzeari jarraitu zaio.
 - Zergadunei eta, oro har, herritar guztiei zergei buruzko informazio eguneratua, era azkar batean eta erraz jasotzekoa eskaintzen duen Web-orria mantentze-lanetan eta diseinuan elkarlanean aritu da, Foru Zerga Kodearen aplikazioa bereziki azpimarratu behar dela.
 - Ekonomia Itunean jasotako batzorde guztien eginkizunak hobeto bete daitezten eskatu edo beharrezkotzat jo diren txosten, azterlan eta analisi guztiak prestatu dira.
 - Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiari dagokion ez erreklaazioen xede diren espedienteak jakinarazteko zerikusia duten zentroak elkarrekin koordinatzeko lanetan jarraitu da, prozeduraren epeak hobetuz. Horrez gain, Epaitegia kudeatzeko aplikazio informatika berria martxan jarri da. Aplikazio hori XLNET zerbitzariaren sistemaren bidez dago eskuragarri.
- Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzaren alorrean honako jarduerok dira aipagarriak:
- 2006rako behin-behineko kupoaren zatiak ordaindu dira eta 2005eko Kupoa kitatu da. Era berean, foru aldundien ekarpenak efektiboak izateko ezarritako epeak kalkulatu eta kudeatu dira.
 - Azken hiruhilekoan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu zuen foru aldundiek 2007an Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharko dizkieten ekarpenen behin-behineko proposamena, baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren arabera.
 - Kontabilitate-oharpenak egin dira laurogei aurrekontuko partidatan. Hauek, Eusko Jaurlaritzak ondoren adierazten diren zioengatik sortutako diru-sarrerak jasotzen dituzte: EBtik eratorritako fondoak eta bestelako berezko diru-sarrerak.
 - Itundutako zergengatik foru aldundiek bildutako zergari egin zaio jarraipena hileroko txostenaz.
 - Urtean behin Estatuaren zerga-bilketa guztiari buruzko jarraipena egin da.
 - Kalkulatu eta kudeatu egin dira honako finantza isuriak: BEZaren egokitzapenetik, fabrikatzearen gaineko zerga berezien egokitzapenetatik eta kupotik eratorriak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat eskumenetan gastuak egotzi edo diru-sarrerak hartzeko bidezkotasanari buruz irizpen batzuk prestatu dira.
- Se han realizado las gestiones correspondientes a las regularizaciones financieras por devolución de cuotas de impuestos especiales de fabricación.
 - Se han realizado labores de coordinación en las relaciones de las Diputaciones Forales con la Administración del Estado, en especial con la Agencia Estatal de Administración Tributaria, participando además en varias reuniones.
 - Se ha elaborado el Informe Anual Integrado de la Hacienda Vasca correspondiente al año 2004 y realizado los trabajos preparatorios para el del 2005 y, además, se ha continuado con la publicación de la revista "Zergak-Gaceta Tributaria del País Vasco".
 - Se ha colaborado en el mantenimiento y rediseño de la página Web que proporciona información tributaria actualizada, de manera rápida y con fácil acceso a los contribuyentes y ciudadanía en general, con mención especial para la aplicación del Código Fiscal Foral.
 - Se han elaborado todos aquéllos informes, estudios y análisis que han sido requeridos o se han considerado necesarios para un mejor cumplimiento de las funciones de las distintas comisiones contempladas en el Concierto Económico.
 - En el ámbito del Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi se ha continuado en la línea de coordinación entre los distintos centros implicados en la comunicación de los expedientes objeto de las reclamaciones, mejorándose los plazos del procedimiento. Además, se ha puesto en funcionamiento la nueva aplicación informática de gestión del Tribunal con acceso a través del sistema de servidor XLNET.
- Dentro del área de la Dirección de Cupo y Aportaciones Financieras, cabe destacar las siguientes actuaciones:
- Se han realizado los pagos de los plazos del cupo provisional para 2006, así como la liquidación del Cupo para 2005, asimismo se han calculado y gestionado los plazos establecidos para hacer efectivas las Aportaciones de las Diputaciones Forales.
 - En el último trimestre se acordó, en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, la propuesta provisional de Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2007, de acuerdo con la metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la CAPV.
 - Se han formalizado anotaciones contables en un total de ochenta partidas presupuestarias, que reflejan los ingresos devengados por el Gobierno Vasco por los conceptos siguientes: fondos procedentes de la UE y otros ingresos propios.
 - Se ha seguido la recaudación tributaria de las Diputaciones Forales por tributos concertados con un informe mensual.
 - Con carácter anual se ha realizado el seguimiento de la recaudación tributaria total del Estado.
 - Se han calculado y gestionado los flujos financieros procedentes del ajuste IVA, de los ajustes de los impuestos especiales de fabricación y del cupo.
 - Se han elaborado dictámenes sobre la procedencia o no de imputaciones de gastos o percepciones de ingresos por esta Comunidad Autónoma referentes a distintas áreas competenciales.

- Kohesio Fondoa Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzeko asmoz etengabe harremanak izan dira Europako Batzordearekin, Estatuaren Administrazioarekin, foru aldundiekin baita Jaurilaritzaren sail sektorialekin ere.
- Udal Sektore Publikoko erakundeen 2004ko ekitaldiko kitapenei dagozkien datuak argitaratu dira.
- Ordainketak egin dira Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren eraberritzearen ondorioz Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak Euskal Herriko udalerrien alde ezarri dituen konpentsazio finantzarioen arabera.
- Inbertsio Publikoari Finantza-Laguntza Emateko Esparru-Planaren baitan dauden erakunde ezberdinetako proiektuen jarraipena egin da, foru aldundien proiektuen Eusko Jaurilaritzari dagokion aldi bereko finantzaketaren ordainketak eginez.

Finantza Zuzendaritzaren eskumenei dagokienez, honako jarduera hauek adierazi behar dira:

- Urteko Planean aurreikusten ziren Finantza Entitateen ikuskapenak; bilakaerari buruzko aldizkako txostenak prestatzea; baimen-espedienteen ebazpenak, administratiboki aurreikusten diren kasuetan; errolda ofizialetan dagozkien inskripzioak; eta Euskal aurrezki kutxen batzordeetan parte hartu da.
- Aseguru artekariak direla eta, diplomak emateko hogeitaz espediente izapidetu dira. Horren barruan, dagokion tasaren jaulkipena, sailburuak emandako Agindua eta diploma ofiziala bera egitea sartzen dira. Baimendutako espediente kopurua hamar izan da.
- 301/2004 Errege Dekretua betez, baimena duten 240 artekaritzari arau horretan aurreikusten den kontabilitateko informazio estatistikoa Finantza Zuzendaritza honetara bidaltzeko eskatu egin zaie .
- Urteko Planaren eta Hiruhileko Aurrekontuen arabera, Altxortegia kudeatu ez ezik, Finantza Zuzendaritzak, Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritzak eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak jarraitu dute, hirurek batera, Administrazioaren ordainketen eta kobrantzen Sistema Integratua (SIPCA) ezartzeko prozesuarekin.
- Eusko Jaurilaritzaren, erakundeen eta baltzu publikoen ekitaldirako aktibo eta pasibo eragiketen baldintzak zehazten dituen Hitzarmena negoziatu eta sinatu egin da eta, gainera, Jaurilaritzaren sailtako finantza hitzarmen guztien baldintzak ikuskatu dira. Baltzu publikoen zorpetze-eragiketak ikuskatu eta, dagokionean, baimendu egin dira eta baita Jaurilaritzak erakundetan eta partaidetutako baltzuetan dituen ordezkariak ere horietan zorpetzeko eragiketak egin ditzaten baimena eman zaie.
- Premiamendu bidezko derrigorrezko diru-bilketa arloan, sailburuaren 2006ko maiatzaren 19ko Aginduari jarraituz, bide-trafikoaren zehapenak exekuzio-aldiko diru-bilketaren kudeaketa lanak burutzeko lankidetzeta eta laguntzarako zerbitzuen kontratua GESTION TRIBUTARIA TERRITORIAL/ATU03, S.L. deritzon enpresari eman zaio. Halaber, Zerga Administrazioa Estatu Agentziarekin laster sinatuko den Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo helbidea duten zordunei dagokien Hitzarmenaren proiektua prestatu da, indarrean dagoena hobetuko duena, hain zuzen.

- Se han mantenido contactos continuos con la Comisión Europea, la Administración Central, las Diputaciones Forales y Departamentos sectoriales del Gobierno para la gestión del Fondo de Cohesión en la Comunidad Autónoma.
- Se han publicado los datos referentes a las liquidaciones del ejercicio 2004 de las entidades del Sector Público Municipal.
- Se han realizado los pagos en las compensaciones financieras establecidas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a favor de los municipios del País Vasco tras la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas.
- Se ha hecho un seguimiento de los proyectos de las distintas instituciones incluidos en el Plan Marco de Apoyo Financiero a la Inversión Pública, realizando los pagos por la cofinanciación correspondiente al Gobierno Vasco de los proyectos de las Diputaciones Forales.

En lo que concierne al ámbito competencial de la Dirección de Finanzas procede reflejar las siguientes actuaciones:

- Se han realizado las inspecciones de entidades financieras previstas en el Plan Anual, los informes periódicos de evolución, así como la resolución de los expedientes de autorización en los casos previstos administrativamente, las inscripciones correspondientes en los Registros Oficiales y se ha participado en las Comisiones de Control de las Cajas de Ahorro Vascas.
- En relación con los mediadores de seguros se han tramitado veinte expedientes de concesión de diplomas, que incluyen la emisión de la tasa correspondiente, la Orden de concesión emitida por la Consejera y la expedición del propio diploma oficial. El número de expedientes autorizados ha ascendido a diez.
- En cumplimiento del Real Decreto 301/2004 se ha iniciado el requerimiento a las 240 correderías autorizadas para que aporten a esta Dirección de Finanzas la información estadístico contable prevista en el mismo.
- Además de la gestión de Tesorería, de acuerdo con el Plan Anual y los Presupuestos Trimestrales, se ha continuado con el proceso tendente a la implantación de un Sistema Integrado de Pagos y Cobros de la Administración (SIPCA), conjuntamente por la Dirección de Finanzas, la de Informática y Telecomunicaciones y la Oficina para la Modernización Administrativa.
- Se ha negociado y firmado el Acuerdo que fija las condiciones de las operaciones de activo y pasivo del Gobierno, Organismos y Sociedades Públicas para el ejercicio y se han supervisado las condiciones de todos los Convenios Financieros de los distintos Departamentos del Gobierno. Se han supervisado las condiciones y autorizado, en su caso, las operaciones de endeudamiento de las Sociedades Públicas, así como a los representantes del Gobierno en Entes y sociedades participadas la aprobación de operaciones de endeudamiento en las mismas.
- En el área de recaudación ejecutiva, en virtud de Orden de la Consejera de 19 de mayo de 2006, se ha adjudicado a la empresa GESTIÓN TRIBUTARIA TERRITORIAL/ATU03, S.L. el contrato de servicios para colaboración y asistencia en la realización de las labores de gestión recaudatoria en periodo ejecutivo de las sanciones de tráfico vial. Asimismo, se ha elaborado un proyecto de Convenio a firmar próximamente con la Agencia Tributaria, respecto de los deudores con domicilio fuera de la Comunidad Autónoma, que mejorará el actualmente vigente.

- Balore-merkatuak ikuskatzeko arloari dagokionez, negoziazioa baztertzeko hamabi espediente erabaki dira Bilboko Burtzan baltzu horien akzioei dagozkienak, horietako bederlatzi SICAVSekoak direnak, Burtzaren Hautazko Merkatuan aldi bereko sarrera izan ditzaten.
- Euskadiko enpresa txiki eta ertainen finantzaketa hobetzeko asmoz, finantza-sozietate edo sozietate parafinanzarioei (Elkargi, SGR, Luzaro EFC, Oinarri, SGR) laguntza emateko ekintzek jarraitu dute (diruz lagungarri diren hitzarmenen bidez eta birfinkapeneko hitzarmenen bitartez, berauek oinarritzak eta osagarria direlarik).
- Jaurlaritzaren Kontseiluak eman dituen abalak formalizatu egin dira, eta aurreko ekitaldietan formalizatu eta kobraezinak suertatu direnak ordaindu egin dira.

2. 2007 URTERAKO HELBURU OROKORRAK.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak ezarri dituen jarraibide nagusien arabera, saila bitarteko eta baliabide ekonomiko, gizatiar eta teknikoekin hornitzeko Sailaren Laguntza eta Zerbitzuak Orokorren Alorrak burutu beharreko egitekoekin gain 2007 urtean beste honako hauek ere aurreikusten dira:

ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK.

Aurreko urteetan bezala, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak honako eginkizun hauek hartuko ditu bere gain: garrantzi ekonomiko handia duten kontratazio-espedituek bideratzea; administrazio honen ondarea kudeatzea, besteak beste, bere inbentarioa eguneratuz eta horren informatika-aplikazioa garatuz; kanpo-asegurua kontratatu eta kudeatzea; hipoteka bidez bermatutako kredituak defendatzea; erregistro publikoetan jaso daitezkeen jardueretan sailari eta baltzu publikoekin kudeaketa- eta aholkularitza-lanak eskaintzea; Kontratu eta Kontratisten erregistroa eta Enpresen Saillapena kudeatzea eta, azkenik, Administrazio Kontratazioarako Aholkularitza Batzordeari euskarri tekniko ematea. Horrez gain, Kontratisten erregistro eta saillapenean alta eta berritatzeko prozedurak digitalizatzeari ekingo zaio baita erregistroa beste herri erakundeekin (Diruzaintza, Ogasuna, etab.) telematika bidez lotzeari, datuak elkartrukatzeko, eta, azkenik, Kontratisten Erregistroaren funtzionamendu-eremua beste herri administrazioetara zabalduko da eta herri kontratazio elektronikoa Eusko Jaurlaritzako gainontzeko sailetan eta horren erakunde autonomoetan zein foru eta toki administrazioan hedatzeari ekingo zaio.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenei dagokienez helburu orokorrak honako hauek dira:

- Bilboko Bizkaia Enparantzako Baltzu Publikoen eraikina erabat bete eta funtzionamenduan jarri.
- Administrazioaren Agiritegi Nagusia barne hartuko duen eraikina egitea.
